



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## **Daniela Tabernig sopranoak eta Tomas Ballicora pianistak Argentinako ganbera-abesti errezitala eskainiko dute**

- Emanaldia azaroaren 19an izango da, datorren asteartean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.

**Bilbo, 2024ko azaroaren 15a.-.** Arriaga Antzokian beste proposamen musikal interesgarri bat izango dugu, foyerrean, datorren asteartean, hilaren 19an. **Daniela Tabernig** soprano argentinar-austriarraren emanaldia izango da, zeinak, **Tomas Ballicora** pianistak lagunduta, bi mundu kulturalen arteko bidaia egingo baitu, XIX. eta XX. mendeetan Espainiaren eta Latinoamerikaren artean izandako truke artistiko baliotsuaren lekuko den ganbera-abesti argentinarren bidez.

Kontzertuan zehar Eduardo Grau, Jaime Pahissa eta Andrés Gaosen obrak entzungo dira, Argentinako hainbat tokitara emigratu eta haietan bizitzen jarri ziren musikari, konpositore eta pedagogo espainiar gailenetako batzuen lanak, garai hartako hazkunde soziokulturalaren parte garrantzitsu izan zirenenak. Argentinako ganbera-abestia aberastea eta garatzea ahalbidetu zuen poeten eta konpositoreen arteko trukearen lekuko gisa, Juan José Castroren obra ere entzungo da.

Tabernigek eta Ballicorak gaur egungo autoreen piezak ere interpretatuko dituzte, hala nola Carlos Guastavino eta Alberto Ginastera argentinar nazionalismoaren ordezkari gailenenak, baita amerikanismo musikalaren erreferentzia diren konpositoreen konposizioak ere, hala nola Hector Iglesias Villoud, Gilardo Gilardi eta Pascual Quarantinorenak.

### **Elkarlan emankor bat**

Daniela Tabernig soprano argentinar-austriarra bere belaunaldiko opera-abeslari txalotuenetako bat da, eta nazioarteko ibilbide nabarmena du. Bi bider irabazi du Abeslari Onenaren saria, Musika Kritikarien Elkartean eskutik, eta Argentinako Konex Fundazioaren saria, hamarkadako bost abeslari garrantzitsuenetako bat izateagatik. Bestalde, Tomas Ballicora pianista eta kultur kudeatzaile argentinar ezagun bat da, ganbera-musikan espezialista dena. Latinoamerikako eszenako ahots garrantzitsuenen ohiko laguntzaile bat da.

Elkarrekin, Tabernig eta Ballicora nazioarteko ziklo ugarian aurkeztu dira, Latinoamerikako obra eta egile ez hain ezagunak ezagutzera emanez kontzertuen eta master classen bidez. Proposamen horiekin egin dute bira Europa osoan zehar eta, orain, Bilbon izango ditugu, Arriaga Antzokian.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 16 euro (beherapenekin)

- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretzako salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)